

June Aiestaran Iparragirre

D maila • 1 saria

Kaixo!

June nauzue, 13 urteko neska beasaindarra. DBHko lehenengo maila egiten ari naiz Loinazpe Institutuan, eta futbola, musika eta bertsoak dira gehien maite ditudan gauzak.

Bertso-sorta hau egiteko, nerabeon bizimodua hartu dut gaitzat. Izan ere, ekintza mordoa egin behar izaten dugu egunean zehar, eta ez dugu lasai egoteko asti handirik izaten. Gai honen inguruan gehiago hausnartu behar genukeela uste dut, eta horregatik idatzi ditut bertso hauek.

Zuen gustukoak izatea espero dut!



Doinua: Bazkaltzean gogoan neukan (6 puntuko moldaketa)

HAU DA HAU BIZIMODUA!

1)

Nerabe baten bizimodua
ez pentsa denik pagotxa,
gelditu gabe ibiltze horrek
dauka zapore mingotsa.
Eskolan maisu-maistrek daukate
oso indartsu ahotsa,
motxila bete lan agintzeak
ez die ematen lotsa.
Eguna joan, eguna etorri
hau da azterketa-hotza,
martxa honetan, aurki guztioi
lehertuko zaigu bihotza!

2)

Beti eguna argitzerako
irteten gara kalera,
lau bat kiloko motxilatzarra
jasota bizkar gainera.
Eskolan, tekno, geo, euskara,
mate eta gaztelera,
handik atera, zerbait jan eta
korrika Ingelesera.
Gero musika zein dantzarako
ezin da galdu aukera,
eta den-dena ondo egitea
eskatzen zaigu, gainera!

3)

Beti gabiltza irakasleen,
gurasoen agindura,
gure bizitzan dena da presa,
dena da abiadura.
Tamalgarria den arren hori
bihurtu zaigu ohitura,
gure bizitza itogarriak
ez al dizue ardura?
Gugan jolasak, aisialdiak
sortzen du soilik lilura,
pozik biziko ginelakoan
etorri ginen mundura!

4)

Zuek guztiok sarri bihurtzen
zarete epaile moduko:
jolaserako sare sozialak
omen ditugu gustuko.
Baina lanetik atera eta
etxean sartu orduko,
gurekin lasai jolasteari
egiten diozue uko.
Zuek horretan denborarik ez
duzue, noski, galduko,
gai sinple horren azterketa ez
zenukete gaindituko!